

EGINKIZUNAK

Donostia Sustapena Donostiako Udalaren merkataritza-sozietate bat da, berez sozietate anonimoa da eta haren titulartasuna udalarena da oso-osorik. Donostia Sustapena, S.A.ren Kapital Soziala bere osotasunean titulartasun publikokoa da, Administrazioaren bitarteko propio eta zerbitzu tekniko izaera du, eta Administrazioa da sozietateko akziodun bakarra, 09/2017 Legean, azaroaren 8koan, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoan xedatutakoaren ondorioetarako.

1902an eratu zen eta 2004. urtean sozietateari atxikita geratu ziren Hiriaren Garapen Ekonomikoarekin lotetsitako udal eskumenak.

Donostiako lurralde eremuan ekoizpen eta enplegu sistemaren garapena zuzenean eta zeharka bultzatzen laguntzen duten jarduera ekonomiko eta sozialak sustatzea du xede Sozietateak, aberastasuna, jarduera ekonomikoak eta enplegua sortzen dituzten era guztietako ekimenak bultzatuz.